



LIDERGO GAITASUNAK

Donostiako eragileak





LIDERGOA LANSAIOAK

Zertarako?

Lidergo eredu eta erreferentzia nagusiak krisian daude, eta bilaketa orokorra dago (jendartean, antolakundeetan) eredu berriak sortzeko.

Nagusi diren ereduek pertsonak aintzat hartzeko hutsuneak dituzte, eta talde lanerako, eredu parte hartzaileagoetarako, osasuntsuagoetarako ez dira baliogarriak.






LIDERGO GAITASUNAK TREBAKUNTZA

Helburuak


- Lidergoaz ulertzen duguna identifikatzea
- Lidergoa eta boterea nola lotzen diren ezagutzea
- Joerak aztertzea
- Lidergo oso baten ezaugarriak ezagutzea
- Beharko ditudan (ditugun) gaitasunak identifikatu eta lantzea.



LIDERGOA LANSAIOAK

Zertaz ariko gara?

- Lidergoaz dugun ulermenaz
 - Identifikatzen ditugun joerez
 - Boterea-Lidergoa non lotzen diren
 - Boterea: Rango/Pribilegioak eta hauek erabileraren eragina
 - Boterea hartzeko-erabiltzeko estiloak
-
- Norbere lidergoa; zertan oinarritu nahi dut nirea (gurea)?
 - Lidergo oso baterako gaitasunak identifikatu eta landu



Gure hitzarmena

Parte hartzea. Denon ikuspegia da interesgarria

Inork ez du egia borobila. Gustuko duzuen hartu eta bestea utzi.

Elkar ikasteko espazioa. Izan ditugun esperientziak elkar trukatzetik ikasi.

Bizipenetik ikasi. Teorietan baino, norberak bere ondorioak ateratzeko espazioa sortzen arituko gara.

Konfidentzialtasuna. Adibideak adierazterakoan eta hemendik kanporako aipamenetan kontuan izan.

Eroso. Behar duguna adierazi.

Zer datorkit burura LIDERGOAz ari garenean?



*Ze sinismen daude
indarrean?*

*Eta ze lidergo mota
ezagutzen ditugu?*

ZER DIOTE LIDERGOAZ ?

Euskaltzaindiak

"Lider": Burua, buruzagia, talde batek jarraitzen dion pertsona



"Lidergo": Buruzagitza

"Buruzagi": Talde bati agintzen dion pertsona


Harluxet hiztegi entziklopegikoa:

"Lider": Alderdi politiko, mugimendu, talde bateko buru den pertsona: buruzagia






Erabaki
egokiena
hartzeko
entzun nahi
zaituztet




Denon
artean
hartuko dugu
erabakia



Ze abantaila-desabantaila ikusten
dizkiogu bakoitzari?

Eta ze momentuetan izan daitezke
lagungarri?





LIDERGOA



BOTEREA

Nik (guk) boterearekin dudan harremana da
nire (gure) lidergoa sostengatzen duena

Zer datorkit burura BOTEREA hitza entzutean?




*Ze sinesmen ditut indarrean?
Nolako harremana dut
botereakin?*



BOTEREA

- Ikusgarri eta ikusezina da
- Sumatu egiten dugu
- Dinamiko da, jario etengabea dago
- Harremanean ematen da





Dimentsio ezberdinek eragiten dute

RANGOA: PRIVILEGIO bilduma

Rangoa, gutako bakoitzak besteekiko harremanean, parte garen taldeetan edo eta bizi garen komunitatean ditugun pribilegioen batura da.

HIERARKIA
INFORMAZIOA
ESKARMENTUA (lanbidean)
ESKARMENTUA (taldean)
ADINA (bizi esperientzia)
EZAGUTZA






Nire botere mapa


1. Markatu ezazu rango/maila aldagai bakoitzean bajutik altura non sumatzen duzun zeure burua (0tik 10era). Borobil bat edo izar bat jarri marra bakoitzean
1. Lotu itzazu marra bakoitzeko borobil/izarrak, marra batekin
1. Hautatu ezazu zure erronka (baju ala altu)




BOTEREA




GEHIEGIZKOA



OREKATUA



SAIHESLEA



GEHIEGIZKOA


Boterea modu autoritarioan.
Erabakiak ezarri / kontrol haundia

Eraginak:

- Obedientzia eta sumisioa. Gainerakoek inolako ardura edo erantzukizunik ez.

Edo...

- Errebeldia eta bazterketa. Kexa iraunkorrak eta ekarpenak egiteko jarrerarik ez.



SAHIESLEA

Erabakiak hartzea saihestu


Presentzia txikia

Ez dago norabiderik

Ez dago helburuetan argitasunik

Eraginak:

- Kaosa
- Noraeza
- "Lidergo salbatzaileen" agerpena



OREKATUA

Dagokiguna hartuz, abusorik gabe.
Erabakiak hartu behar direnean hartuz, eta argitasunez
azalduz
Gauzak gertatu daitezen errazten
Iritziak-ekarpenak entzunez
Gainbegiratzen, errazten...

Eraginak:

- Bakoitzak bere tokia hartzen du. Ardura.
- Konfiantza, konpromisoa eta errespetua.



BOTEREA

*"Botereari uko egiteko modu ohikoena, ez
daukagula pentsatzea da"*

Alice Walker



NOLAKOA DA NIRE LIDERGO GAITASUNA?

Zein joera ditut?

Nola erabiltzen dut?

Zer nahiko nuke aldatu?





ZE GAITASUN DIRA GARRANTZITSU LIDERGO OSASUNTSU ETA ERAGINKOR BATERAKO ?

- Autokontzientzia
- Behatzailea - irekitasuna
- Entzutea
- Iritziak eman eta jasotzeko abilezia



AUTOKONTZIENTZIA




BALIOAK

*Zertarako erabili nahi dut
nire boterea?*




GAREN BEHATZAILEA



Gure egia, gure
interpretazioa


Mundua
interpretatzeko
dugun modua

ZENTZUMENETATIK
INFORMAZIOA JASO
+
INTERPRETATU
(esanahi bat eman)




Zeren arabera?

- Biologia
- Kultura
- Hizkuntza
- Historia pertsonala



**“Amuarrainak begi bi, sei eskailuk
hamabi”**



ENTZUTEA

Hauteman + Interpretatzea



HAUTEMAN

zentzumenetatik:


Soinuak ENTZUN

Gorputza IKUSI

SENTITU usaimena, taktua...


INTERPRETATU

Garen behatzaitetik




ARRAKALA
INTERPRETATIBOA

IRITZIAK EMAN ETA JASOTZEKO ABILEZIA



FEEDBACK

Hizkuntzaren erabilera



BAIEZTAPENAK

Mundua deskribatzen dugu,
Osagai objetiboen bitartez




ADIERAZPENAK

Mundua sortzen dugu




Konfiantza-autoritatea elikatzen duen hizkuntza erabilera:



Egiazko
baieztapenak

Baliozko
adierazpenak

Komunikazio eraginkorra




FEEDBACKEMAN

- ✓ Testuingurua prestatu: ingurua, gorputza, emozioa, elkarriketa
- ✓ Iritzia/interpretazioa eskaini eta oinarritu
- ✓ Arakatu, entzun
- ✓ (Aldaketa zehatzak eskatu)
- ✓ Orokortasunak eta "etiketa" negatiboak saihestu




FEEDBACKJASO

- ✓ Prestatu: ingurua, gorputza, emozioa
- ✓ Denbora hartu erantzuteko
- ✓ Arakatu, ondo ulertzeko
- ✓ Eskertu
- ✓ (Aldaketak-ekintzak adostu)




*Guri buruzko
feedback jasotzen
dugun heinean,
gure irudi publikoari
buruz gehiago
dakigu.*





IRUDI PRIBATUA



Nitaz pentsatzen
dutela uste dudana



IRUDI PUBLIKOA

Nitaz pentsatzen
dutena

LIDERGO GAITASUNAK



*Ze gaitasun-multzorekin lotzen dut
nire joera nagusia?*



EDOZEIN ERAGILE-TALDEK HONAKOA BEHAR DU LIDERGOAZ

Pertenentzia:

Kide guztiek parte direla eta dauden tokitik beren lana ongi egin dezaketela sentitzea.

Helburua eta Printzipioak:

Argi egotea sistema osoan

Talentuari bidea:

Pertsonen gaitasun/trebeziak garatzeko eta taldearen zerbitzura jartzeko aukera izatea

Kanpoan eragitea:

Egiten den horrek kanpoan (munduan) zerbait eragitea. Nonbaitera iristea.

Errebeldeak entzunak izatea:

Sistemaz informazio baliotsua duten neurrian

Ordena

Ziurtasuna, babesa, argitasuna eta orientazio nahikoa eskainiko duena.

BAI-EZ arteko oreka

Ematen diren baiezkoe eta ezezkoen arteko oreka egotea

Egitekoan argitasuna

Zer egiten dugun eta zer ez argi egotea



EDOZEIN ERAGILE-TALDEK HONAKOA BEHAR DU LIDERGOAZ

Autonomia

Nahikoa autonomia izatea, barne edo kanpoko mundutik banandua egon gabe.

Talde izatea

Nahikoa konexio, arintasun, inspirazio eta energia egotea talde barruan

Arakatzea

Soluzioak pentsatu edo sintomak tratatu aurretik ikertzeko borondatea eta disziplina izatea

Sorrera eta historia jasotzea

Duen historia, bere momentu goxo eta traumatikoekin aitortzea, ahazteko joera beharrean

Etorkizuna planifikatu-datorrenari bidea egin oreka

Orainetik, aurrera begira nahi dena lortzeko estrategia eta aldi berean kanpotik etorriko diren aurkeren arteko dantzan aritzea.

Aldaketa prozesuei bide

Sakoneko konpromezu bat hartzea aldaketarekin. Horrek, lidergoak elastizidade handia izatea eta zehazki nola amaituko den eta zertan bilakatuko den sistema hori jakin gabe aritzea eskatuko duela onartuz.

eskerrik asko

